

ARAU PROPOSIZIORAKO EKIMENA,
EKIALDEKO BARRUTIKO UDAL BATZARRAREN OSAERA ALDATZEKO

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak ARAU PROPOSIZIORAKO EKIMEN hau aurkezten du, Udalbatzaren Organo Araudiko 90. eta 91. artikulua oinarri, Donostiako Barrutien Organo Araudia aldatzeko, Ekialdeko Barrutiko Udal Batzarraren osaketari dagokionean.

JUSTIFIKAZIOA

Irailaren 12ko Bozeramaileen Batzordean Udaleko Idazkaritzak aurkeztutako proposamenaren arabera, Ekialdeko Barrutiko Udal Batzarrean Donostiako udal taldeok dugun orain arteko ordezkari aldatu egingo da, bat etortzeko 2019ko maiatzaren 26ko udal hauteskundeek utzitako Udal Batzarraren osaketarekin.

EH Bildu udal taldearen ustez, Ekialdeko Barrutirako proposatu den Udal Batzarreko banaketa berri horrek ez du egokiro orekatzen udal taldeok Donostiako Udal Batzarrean eskuratu dugun ordezkari politikoak.

Aipatu guztiagatik, hau da EH Bildu udal taldeak udalbatzak hartzeko proposatzen duen:

ERABAKIA

- Donostiako Barrutien Organo Araudia aldatzea ontzat ematea, arautze berri baten bidez egokiro orekatzeko udal taldeok eskuratu dugun ordezkari politikoak, betiere, kalterik eragin gabe Barrutiko Udal Batzarrean elkarrekin duten ordezkariaren ehunekoari.

Donostia, 2019ko irailaren 18an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko bozeramailea